

## **Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa**

**Biltzar Orokorrak onartu eta sinadura eta berrespenerako irekia, 1989ko azaroaren 20ko 44/25 ebazpenean**

**Indarrean jartzea: 1990eko irailaren 2an, 49. artikuluekin bat etorriz.**

### **Atarikoa**

Konbentzio honetako estatu alderdiek,

Kontuan harturik, Nazio Batuen Gutunean aldarrikatu printzipioekin bat etorriz, gizaki guztien duintasuna eta eskubideak berberak eta besterenduezinak direla aitortzea munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarri dela,

Aintzat harturik, Nazio Batuetako herrialdeek Gutunean euren ustea berretsi dutela, gizakiaren oinarrizko eskubideetan eta pertsonaren duintasun eta balioan, eta erabaki dutela gizarte-aurrerapena sustatzea eta bizitza-maila hobetzea, askatasunaren kontzeptua modu zabalagoan ulertuz,

Aitortuz, Nazio Batuek, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta giza eskubideen nazioarteko itunetan, aldarrikatu eta erabakitakoaren ildotik, pertsona orok bertan adierazitako eskubide eta askatasun guztiak dituela, inolako bereizketarik gabe, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide,

Gogoraturik, Nazio Batuek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aldarrikatuaren ildotik, hurrek eskubidea dutela arreta eta laguntza bereziak izateko,

Jakinik, familiak, gizartearen oinarrizko talde gisa eta bere kideen hazkuntza nahiz ongizaterako inguru natural gisa, eta, bereziki, hurrei dagokienez, erkidegoan dituen ardurak bere gain hartu ahal izateko, behar adinako babes eta laguntza izan behar duela,

Aitortuz, haurrak familia batean hazi behar dutela, euren nortasuna oso-osoan eta modu harmoniatsuan garatzeko, zorientasun-, maitasun- eta ulermen-giroan,

Kontuan harturik, haurrak erabat prestatuak izan behar dutela, gizartean bizitza independentea izateko, eta Nazio Batuen Gutunean aldarrikatutako idealen espirituan oinarrituta hezi behar dutela eta, bereziki, bakearen, duintasunaren, tolerantziaren, askatasunaren, berdintasunaren eta solidaritatearen espirituan, Aintzat harturik, hurrei babes berezia emateko beharrezana adierazi dela 1924ko Ginebrako Adierazpenean, haurren eskubideei buruzkoan, eta haurren eskubideei buruzko Adierazpenean, 1959ko azaroaren 20an Biltzar Orokorrak onartutakoan, eta beharrezan hori aitortu dela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean (batik bat, 23 eta 24. artikuluetan), Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunean (batik bat, 10. artikuluan) eta haurren ongizateaz arduratzen diren erakunde espezializatuen eta nazioarteko erakundeen estatutuetan nahiz kasuan kasuko tresnetan,

Aintzat harturik, haurren eskubideei buruzko Adierazpenean aipatutakoaren ildotik, «haurrek, heldutasun fisiko eta mentalik ez dutenez, babes eta arreta berezia behar dutela, bai eta legearen babes egokia ere, jaio aurretik nahiz ostean»,

Gogoraturik, xedatu dena, haurren babeserako eta ongizaterako printzipio sozial eta juridikoei buruzko Adierazpenean, bereziki, adopzioari eta haurrak zaintza-etxeetan uzteari dagokionez, maila nazionalean nahiz nazioarteko mailan; adingabeen justizia-administrazioarako Nazio Batuen gutxieneko Erregeletan (Beijingo Erregelak); eta emakumeak eta haurrak larrialdi-egoeretan eta gatazka armatuetan babesteari buruzko Adierazpenean,

Aitortuz, munduko herrialde guztietan daudela baldintza oso gogorretan bizi diren haurrak, eta haur horiek arreta berezia behar dutela,

Behar bezala aintzat harturik, herri bakoitzeko tradizioen eta kultura-balioen garrantzia, haurrek babesa eta garapen harmoniatsua izan ditzaten,

Aitortuz, nazioarteko lankidetzaren garrantzia, haurren bizitza-baldintzak hobetzeko herrialde guztietan, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan,

Hurrengo hitzartu dute:

## **I. ZATIA**

### **1. artikulua**

Konbentzio honen ondoretarako, haurra da hemezortzi urtetik beherako pertsona oro, non ez duen lehenago lortu adin nagusitasuna, haurrei aplikatu beharreko legearen arabera.

### **2. artikulua**

1. Estatu alderdiek konbentzio honetan adierazitako eskubideak errespetatuko dituzte, eta ziurtatuko dute konbentzio hau aplikatzen zaiela euren jurisdikzioaren mende dauden haurrei, inolako bereizketarik gabe, haurren, gurasoen nahiz euren lege-ordezkarien arraza, larri-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, ezintasun fisikoak, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide.

2. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, haurrek babesa izan dezatela bermatzeko, paira dezaketen bereizkeria- edo zigor-mota guztien aurka, euren guraso, tutore edo familiakoek duten estatusarengatik, dituzten jarduerengatik, adierazi dituzten iritzienengatik edo dituzten sinesmenengatik.

### **3. artikulua**

1. Hurrei dagokienez, gizarte-ongizateko erakunde publiko nahiz pribatuek, auzitegiek, administrazio-agintariek edo legegintza-organismoek hartzen dituzten neurri guztiek haurren interes gorena zaintzea izango dute lehendabiziko ardura.

2. Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, hurrei ziurtatzeko euren ongizaterako beharrezkoak diren babesak eta zaintza, kontuan hartuz guraso, tutore eta legearen arabera haurren gaineko ardura duten pertsonen eskubideak eta eginbeharrak, eta, helburu horrekin, egoki diren legegintza- eta administrazio-neurri guztiak hartuko dituzte.

3. Estatu alderdiek ziurtatuko dute, haurren zaintzaz eta babesaz arduratzen diren erakunde, zerbitzu eta establezimenduek agintari eskudunek ezarritako arauak betetzen dituztela, bereziki, segurtasunaren, osasunaren eta langileen kopuru eta gaitasunaren arloetan, bai eta hori guztiori modu egokian gainbegiratzeari dagokionez ere.

#### **4. artikulua**

Estatu alderdiek administrazio-neurriak, legegintza-neurriak eta bestelako neurriak hartuko dituzte, konbentzio honetan aitortutako eskubideak eragingarri egiteko. Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideei dagokienez, estatu alderdiek neurri horiek hartuko dituzte, euren baliabideen arabera ahal dutenik eta gehien, eta, beharrezkoa denean, nazioarteko lankidetzaren esparruan.

#### **5. artikulua**

Estatu alderdiek errespetatuko dituzte, gurasoen, edo, hala denean, tokiko ohiturak ezarritakoaren arabera, familia zabalaren edo erkidegoaren, tutoreen edo legearen arabera hurrez arduratu behar diren beste pertsona batzuen ardurak, eskubideak eta eginbeharrak, hurrei, euren gaitasunen bilakaerarekin bat etorriz, jarraibide eta orientazio egokiak emateari dagokionez, hurrek konbentzio honetan aitortutako eskubideak egikari ditzaten.

#### **6. artikulua**

1. Estatu alderdiek aitortzen dute haur guztiek berez dutela bizitzarako eskubidea.

2. Estatu alderdiek ahalik eta gehien bermatuko dute haurren bizi-iraupena eta garapena.

#### **7. artikulua**

1. Haurrak jaio eta berehala inskribatuko dira, eta jaiotzen direnetik eskubidea edukiko dute izena izateko, naziotasun jakin bat eskuratzeko eta, ahal den neurrian, euren gurasoak ezagutzeko eta gurasoen arreta izateko.

2. Estatu alderdiek zainduko dute eskubide horiek aplikatzen direla, legeria nazionalarekin eta gai horretan kasuan kasuko nazioarteko tresnen ondorioz euren gain hartu dituzten betebeharrekin bat etorriz, batez ere, haurrak apatrida izan litezkeenean halakorik ezean.

## **8. artikulua**

1. Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, errespetatzeko haurrek euren nortasunari eusteko duten eskubidea, horretara biltzen direla naziotasuna, izena, eta familia-harremanak, legearekin bat etorritz, zilegi ez den esku-sartzerik gabe.
2. Haurrak euren nortasun-osagai batzuez edo guztiez gabetuak direnean, estatu alderdiek laguntza eta babes egokiak eman beharko dituzte, nortasun hori lehenbailehen berrezar dadin.

## **9. artikulua**

1. Estatu alderdiek zainduko dute haurrak gurasoengandik bananduak ez izatea horien borondatearen aurka, salbu eta, berrikuspen judiziala gorabehera, agintari eskudunek erabakitzen dutenean, aplikagarri diren lege eta prozedurekin bat etorritz, banantze hori beharrezkoa dela haurren interes gorenari begira. Erabaki hori beharrezkoa izan daiteke kasu jakin batzuetan, hala nola, gurasoek haurrei tratu txarra ematen dietenean edo haurrei begira arretarik jartzen ez dutenean, edo gurasoak bananduta bizi direnean eta haurrek bizilekua izateko tokiari buruz erabakia hartu behar denean.
2. Artikulu honetako 1. paragrafoarekin bat etorritz hasitako prozeduretatik edozeinetan, alderdi interesdun guztiei eskainiko zaie prozedura horretan parte hartu eta euren iritzien berri emateko aukera.
3. Estatu alderdiek errespetatuko dute guraso batengandik edo bi gurasoengandik bananduta dauden haurren eskubidea, bi-biekin maiztasunez harreman pertsonalak eta zuzeneko lotura izateko, salbu eta hori haurren interes gorenaren aurka doanean.
4. Banantze hori estatu alderdi batek hartutako neurri baten ondorio bada, neurri horien artean dela haurren guraso bat edo bi gurasoak nahiz haurrak eurak atxilotzea, espetxeratzea, erbesteratzea, deportatzea edo hiltzea (barnean dela edozein arrazoirengatik gertatutako heriotza, pertsona estatuaren zaintzaren mende dagoen bitartean), orduan estatu alderdiak informazioa emango die, hala eskatzen zaionean, gurasoei, haurrei edo, bidezkoa bada, familiako beste kide batzuei, absente dagoen familiakoaren edo absente dauden familiakoen gainean, betiere, hori ez bada kaltegarria haurren ongizaterako. Estatu alderdiek egiaztatuko dute, halaber, eskari hori aurkezteak ez dituela berarekin ekarriko mesedegarri ez diren ondorioak pertsona interesdunentzat.

## **10. artikulua**

1. 9. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera estatu alderdiek duten betebeharrarekin bat etorritz, estatu alderdiek kontuan hartuko dute, modu positiboan, humanitarioan eta arin, haurrek edo haurren gurasoek egindako eskabide oro, estatu alderdi batean sartu edo bertatik irteteko, familia bateratzeko asmoarekin. Estatu alderdiek bermatuko dute, halaber, eskari hori aurkezteak ez dituela berarekin ekarriko mesedegarri ez diren ondorioak eskatzaileentzat, ezta horien familiakoentzat ere.

2. Haurren gurasoak estatu desberdinetan bizi direnean, hurrek eskubidea izango dute, aldian-aldian harreman pertsonalak eta zuzeneko lotura izateko bi gurasoekin, salbuespeneko inguruabarrak daudenean izan ezik. Helburu horrekin, eta 9. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera estatu alderdiek duten betebeharrarekin bat etorritik, estatu alderdiek haurren eta gurasoen eskubidea errespetatuko dute, edozein herrialdetatik irteteko, baita euren herrialdetik ere, eta euren herrialdean sartzeko. Edozein herrialdetatik irteteko eskubideak legeak ezarritako murrizketak izango ditu bakarrik; orobat, murrizketa horiek beharrezkoak izan beharko dute, segurtasun nazionala, ordena publikoa, osasun edo moral publikoak eta beste pertsona batzuen askatasunak babesteko, eta bateragarriak izan beharko dute konbentzio honetan aitortutako gainerako eskubideekin.

## **11. artikulua**

1. Estatu alderdiek neurriak hartuko dituzte, haurrak atzerrira zilegi ez den moduan lekualdatzearen aurka eta haurrak atzerrian zilegi ez den moduan atxikitzearen aurka borrokatzeko.

2. Horretarako, estatu alderdiek sustatuko dute bitariko edo alderdi anitzeko akordioak hitzartzea edo alde zuzenetik zeuden akordioei atxikitzea.

## **12. artikulua**

1. Estatu alderdiek haurrei eskubidea bermatuko diete, askatasunez euren iritzia emateko, haurrengan eragina duten gai guztien inguruan, betiere, haurrak gai badiira iritzi hori askatasunez emateko; haurren iritzia behar bezala kontuan hartuko dira, haurren adinaren eta heldutasunaren arabera.

2. Horretarako, haurrei modu berezian emango zaie aukera, eurek esan beharrekoa entzun dadin, haurrei buruzko prozedura judicial eta administratibo guztietan, zuzenean nahiz ordezkariaren bidez edo organo egoki baten bidez, lege nazionalako prozedura-arauekin bat etorritik.

## **13. artikulua**

1. Hurrek adierazpen-askatasunerako eskubidea izango dute; eskubide horrek bere baitara bilduko du era guztietako informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta zabaltzeko askatasuna, mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz edo inprimatuta, modu artistikoan edo hurrek aukeratutako beste edozein bide baliatuta.

2. Eskubide horren egikaritzea murrizketa batzuen mende izan daiteke, murrizketok soil-soilik legeak jasotakoak eta beharrezkoak izan beharko dutela:

a) Enparauen eskubideak nahiz izen ona errespetatzeko; edo

b) Segurtasun nazionala edo ordena publikoa babesteko edo osasun nahiz moral publikoa babesteko.

## **14. artikulua**

1. Estatu alderdiek haurren pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea errespetatuko dute.

2. Estatu alderdiek errespetatuko dituzte, gurasoen eta, hala denean, lege-ordezkarien, eskubide eta eginbeharrak, haurrek zuzentzearen inguruan euren eskubidea egikaritu behar dutenean, haurren gaitasunen bilakaerarekin bat etorritik.

3. Norberaren erlijioa edo sinesmenak izateko askatasunaren muga bakarrak izango dira legeak ezarritakoak, halakoak beharrezkoak direnean segurtasuna, ordena, moral edo osasun publikoak edo gainerako oinarriko eskubide eta askatasunak babesteko.

## **15. artikulua**

1. Estatu alderdiek aitortzen dituzte haurren eskubideak, elkartzeko askatasunari eta bilera baketsuak egiteko askatasunari dagokienez.

2. Eskubide horiek egikaritzeari dagokionez ez da murrizketarik ezarriko, lege honekin bat etorritik ezarritakoez landa; orobat, azken murrizketa horiek beharrezkoak izan beharko dute, gizarte demokratiko batean, segurtasun nazionalari edo publikoari, ordena publikoari, osasun eta moral publikoak babesteari edo gainerako eskubide eta askatasunak babesteari begira.

## **16. artikulua**

1. Haurrek ez dute nozituko nahierarako edo legearen aurkako esku-sartzerik euren bizitza pribatuan, familian, egoitzan edo korrespondentzian, ezta euren ohorearen eta izen onaren aurkako erasorik ere, halakoak legearen aurkakoak direnean.

2. Haurrek eskubidea dute, legearen babesa izateko halako esku-sartze edo erasoen aurka.

## **17. artikulua**

Estatu alderdiek aitortzen dute komunikabideek gauzatzen duten eginkizun garrantzitsua, eta zainduko dute haurrek informazioa eta materiala eskura izatea iturri desberdinetatik, nazionaletatik nahiz nazioartekoetatik, batik bat, informazio eta material horren helburua denean euren gizarte-, espiritu- eta moral-ongizatea eta osasun fisiko eta mentala sustatzea. Xede horrekin, estatu alderdiek:

a) Komunikabideei eskatuko diete haurrentzat gizarte- eta kultura- interesa duten informazio eta materialak zabaltzea, 29. artikuluko espirituarekin bat etorritik;

b) Nazioarteko lankidetzak sustatuko dute, kultura-iturri desberdinek, nazionalak nahiz nazioartekoak, eratorritako informazio eta material horiek ekoitzi, trukatu eta zabaltzeari dagokionez;

c) Bultzatuko dute haurrentzako liburuak ekoitzi eta zabaltzea;

d) Komunikabideei eskatuko diete modu berezian kontuan har ditzatela gutxiengoan dauden edo indigenak diren taldeetako haurren beharrian linguistikoak;

e) Sustatuko dute jarraibide egokiak egitea, haurrak babesteko euren ongizatearentzat kaltegarri den informazio eta material ororen aurka, kontuan hartuz 13 eta 18. artikuluetako xedapenak.

## **18. artikulua**

1. Estatu alderdiek ahalik eta ahalegin gehien egingo dute, bi gurasoek, haurrak hazteari eta garatzeari dagokienez, betebeharrak erkideak dituztela dioen printzipioa bermatzeko. Gurasoek edo, hala denean, lege-ordezkariek izango dute haurrak hazteko eta garatzeko oinarrizko ardura. Euren kezka nagusia haurren interes gorena izango da.

2. Konbentzio honetan adierazitako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu alderdiek gurasoei eta lege-ordezkariei laguntza egokia emango diete, haurrak hazteari dagokionez euren eginkizunak gauza ditzaten, eta zainduko dute hurrez arduratzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuak sortzea.

3. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, lan egiten duten gurasoen hurrek eskubidea izan dezaten haurren zaintza-zerbitzu eta -instalazioak baliatzeko, halakoek horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituztenean.

## **19. artikulua**

1. Estatu alderdiek legegintza-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurri egoki guztiak hartuko dituzte, haurrak babesteko kalte edo abusu fisiko nahiz mental, arretarik eza edo zabarkeriazko tratua, tratua txar edo esplotazio mota ororen aurka, sexu-abusua barne, haurren zaintza dagoenean gurasoen, lege-ordezkarie baten edo haur horiek ardurapean dituen beste edozein pertsonaren mende.

2. Babes-neurri horiek bere baitara bildu beharko lituzkete, egoki denaren arabera, prozedura eragingarriak, gizarte-programak ezar daitezkeen, hurrei eta haurrak zaintzen dituztenei eskaintzeko behar adinako laguntza, bai eta bestelako prebentzio-mota batzuk ezar daitezkeen ere, eta, berebat, hurrei dagokienez, arestian aipatu tratua txarren kasuak daudenean, halakoak identifikatu, jakinarazi, erakunde baten esku utzi, ikertu, tratatu eta begiratu daitezkeen, eta, egoki denaren arabera, esku-hartze judiziala izan dadin.

## **20. artikulua**

1. Haurrak aldi batean edo modu iraunkorrean familia-inguruetik kanpo daudenean, edo horien interes gorenak galdatzen duenean inguru horretan ez egotea, orduan hurrek eskubidea izango dute estatutik babes eta laguntza bereziak jasotzeko.

2. Estatu alderdiek beste zaintza-mota batzuk bermatzeko dituzte haur horientzat, euren lege nazionalekin bat etorritik.

3. Zaintza horien artean egongo dira, besteak beste, haurrak zaintza-etxeetan uztea, zuzenbide islamiarreko kafala, adopzioa edo beharrezkoa izanez gero, haurrak adingabeak babesteko erakunde egokietan uztea. Konponbideak hartzeko unean, arreta berezia jarriko da, haurrek hezkuntzan jarraipena izatearen komenigarritasunari, eta horien etnia-, erlijio-, kultura- eta hizkuntza-jatorriari begira.

## **21. artikulua**

Adopzio-sistema aitortzen edo baimentzen duten estatu alderdiek zainduko dute haurren interes gorena dela lehendabiziko ardura, eta:

a) Zainduko dute haurren adopzioa agintari eskudunek bakarrik baimentzen dutela; agintari horiek erabakiko dute, aplikagarri diren legeekin eta prozedurekin bat etorriz, eta egoki nahiz sinesgarri den informazio guztia oinarri hartuta, adopzioa onargarria dela, haurren egoera juridikoa ikusirik, euren gurasoekin, ahaideekin eta legeordezkariekin dituzten harremanei dagokienez, eta, betiere, hala ezartzen denean, pertsona interesdunek jakinaren gainean egonik adostu badute adopzioa, beharrezkoa izan daitekeen aholkularitza oinarri hartuta;

b) Aitortuko dute beste herrialde batean gauzatutako adopzioa haurrak zaintzeko beste bide bat izan daitekeela, haurrak ezin badira utzi zaintza-etxe batean edo ezin bazaizkie eman adopzio-familia bati, edo jatorrizko herrialdean hurrei ezin bazaie eskaini arreta egokirik;

c) Zainduko dute beste herrialde batean adoptatu beharreko haurrek izatea jatorrizko herrialdean adopzioari begira dauden babes eta arau baliokideak;

d) Egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, bermatzeko beste herrialde batean gauzatutako adopzioaren kasuan, haurrak adopzioan ematearen ondorioz finantzaonura bidegabeak ez sortzea adopzio-ematean parte hartzen dutenentzat;

e) Artikulu honetako helburuak sustatuko dituzte, bidezkoa denean, bitariko edo alderdi anitzeko konponketak edo akordioak hitzarturik, eta ahaleginak egingo dituzte, esparru horren barruan, bermatzeko haurrak beste herrialde batean uzten direla agintari edo erakunde eskudunen bidez.

## **22. artikulua**

1. Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte, erdiesteko errefuxiatu-estatutua lortu nahi duten hurrek edo nazioarteko nahiz nazioko zuzenbide edo prozedura aplikagarriekin bat etorriz errefuxiatutzat hartutako hurrek izan ditzaten, bakarrik daudenean nahiz euren gurasoek edo beste edozein pertsonak lagundurik, babes eta laguntza humanitario egokiak, baliatzeko konbentzio honetako kasuan kasuko eskubideak, bai eta estatu horiek giza eskubideen eta izaera humanitarioko nazioarteko zein tresnetako alderdi izan, eta tresna horietan adierazitako eskubideak ere.

2. Horretarako, estatu alderdiak lankidetzan arituko dira, egokitzen jotzen duten moduan, Nazio Batuek eta gobernuen arteko gainerako erakunde eskudunek, eta gobernu kanpoko erakundeek, halakoek Nazio Batuekin lankidetzan dihardutenean,



egiten dituzten ahalegin guztietan, haur errefuxiatu guztiak babestu eta haur horiei laguntzeko, eta euren gurasoak edo familiako beste kide batzuk bilatzeko, helburu izanik beharrezko informazioa lortzea, haurrak familiarekin elkar daitezten. Gurasoak edo familiako kideetarik inor ezin denean bilatu, haurrei emango zaie edozein arrazoiengatik modu iraunkorrean edo aldi baterako familia-ingurunetik kanpo dauden haurrei ematen zaien babes bera, konbentzio honetan xedatutakoaren arabera.

### **23. artikulua**

1. Estatu alderdiek aitortzen dute ezintasun mentala edo fisikoa duten haurrek izan beharko dutela bizitza bete-betea eta egokia, baldintza jakin batzuetan, duintasuna ziurtatuko dietenak, beraien kabuz baliatzea ahalbidetuko dietenak eta haurrek erkidegoan modu aktiboan parte hartzea ahalbidetuko dutenak.

2. Estatu alderdiek aitortzen dute ezintasuna duten haurren eskubidea arreta bereziak izateko, eta bultzatu eta ziurtatuko dute, eskuragarri dituzten baliabide guztiekin, zein baldintza ezarri eta baldintza horiek betetzen dituzten haurrei eta haur horiek zaintzeko ardura dutenei laguntza ematea, hala eskatu beharko dena, eta bat etorri beharko dena, haurren egoerarekin eta gurasoen edo haur horiek zaintzen dituzten pertsonen inguruabarrekin.

3. Ezintasuna duten haurren beharrian berezien arabera, artikulua honetako 2. paragrafoarekin bat etorritz ematen den laguntza dohainekoa izango da, ahal den guztietan, kontuan harturik gurasoen edo haurrak zaintzen dituzten beste pertsonen egoera ekonomikoa; laguntza hori bideratuko da ezintasuna duten haurrek modu eragingarrian eskura izan ditzaten hezkuntza, gaitasuna, osasun-zerbitzuak, birgaikuntza-zerbitzuak, enplegurako prestakuntza eta aisialdirako aukerak, eta zerbitzu horiek jaso ditzaten, haurrek gizarteratzea eta banakako garapena erdiesteko, bai eta euren kultura- eta espiritu-garapena ahalik eta gehien erdiesteko ere.

4. Estatu alderdiek sustatuko dute, nazioarteko lankidetzako espirituarekin, ezintasuna duten haurren osasun-arreta prebentiboaren eta tratamendu mediko, psikologiko eta funtzionalaren esparruan informazioa trukitzea, horretara biltzen dela birgaikuntza-metodoen eta irakaskuntza-zerbitzuen nahiz lanbide-heziketaren zerbitzuei buruzko informazioa zabaltzea, bai eta informazio hori lortzea ere, estatu alderdiek esparru horietan gaitasuna eta ezaguerak hobetu ditzaten eta esperientzia gehiago har dezaten. Ondore horietarako, modu berezian kontuan hartuko dira garapen-bidean dauden herrialdeen beharrianak.

### **24. artikulua**

1. Estatu alderdiek aitortzen dute haurrek duten eskubidea, ahalik eta osasun-mailarik handiena eta gaixotasunak tratatzeko eta osasuna berreskuratzeko zerbitzuak izateko. Estatu alderdiek ahaleginak egingo dituzte, ziurtatzeko haurrak gabetuak ez izatea osasun-zerbitzu horiek baliatzeko eskubideaz.

2. Estatu alderdiek ziurtatuko dute eskubide hori bete-betean aplikatzea eta, bereziki, neurri egokiak hartuko dituzte, helburu hauek lortzeko:

- a) Haurren heriotza-tasa eta haurtzarokoa murriztea;
- b) Haur guztientzat beharrezkoak diren osasun-laguntza eta osasun-arreta ziurtatzea, lehentasuna emanez oinarrizko osasun-arreta garatzeari;
- c) Gaixotasunen eta nutrizio gabeziaren aurka borrokatzea, oinarrizko osasun-arretaren esparruan, besteak beste, eskura dagoen teknologia aplikatuta eta nutrizio-izaerako elikagai egokiak eta edateko ur osasungarria hornituta, kontuan hartuz ingurumena kutsatzeko peril eta arriskuak;
- d) Haurrak jaio aurretik nahiz ostean amei osasun arreta egokia ziurtatzea;
- e) Ziurtatzea gizarteko sektore guztiek, eta bereziki gurasoek eta haurrek, ezagutzen dituztela haurren osasunaren eta nutrizioaren oinarrizko printzipioak, edoskitze naturalaren, higienearen eta ingurunea garbi izatearen abantailak, eta arriskuak prebenitzeko neurriak; eskura dutela kasuan kasuko hezkuntza; eta jakitate horiek aplikatzean babesa dutela;
- f) Garatzea oinarrizko osasun-arreta prebentiboa, gurasoei eman beharreko orientazioa eta familia planifikatzeari dagokionez hezkuntza eta zerbitzuak.

3. Estatu alderdiek egoki eta eragingarri diren neurri guztiak hartuko dituzte, haurren osasunarentzat kaltegarriak diren eginera tradizional guztiak abolitzeko.

4. Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, nazioarteko lankidetzaz sustatu eta bultzatzeko, artikuluko honetan aitortutako eskubidea arian-arian erabat gauza dadin. Ondore horietarako, modu berezian kontuan hartuko dira garapen-bidean dauden herrialdeen beharrezkoak.

## **25. artikulua**

Agintari eskudunek haurrak establezimendu batean barneratzen dituztenean, helburu izanik osasun fisiko edo mentalari buruzko arreta, babesa edo tratamendua, estatu alderdiek haurren eskubidea aitortzen dute, haur horiek zein tratamenduren mende izan eta tratamendu horren eta euren barneratzearen inguruko gainerako inguruabarren aldiak azterketa izateko.

## **26. artikulua**

1. Estatu alderdiek haur guztiei aitortuko diete Gizarte Segurantzaren onuradun izateko eskubidea, baita gizarte-asegurua ere, eta egoki diren neurriak hartuko dituzte, eskubide hori erabat gauza dadin, euren legeria nazionalarekin bat etorritik.

2. Prestazioak eman behar dira, hala behar denean, kontuan hartuz baliabideak eta haurren eta haurren mantenuaz arduratzen diren pertsonen egoera, bai eta haurrek edo haur horien izenean zein prestazio-eskabide egin eta eskabide horri begira garrantzitsua den beste edozein inguruabar ere.

## **27. artikulua**

1. Estatu alderdiek aitortzen dute haur guztiek duten eskubidea, bizitza-maila egokia izateko, euren garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialari dagokionez.
2. Gurasoek edo haurrez arduratzen diren beste pertsonak oinarrizko arduraren dute, euren ahalmen eta baliabide ekonomikoen arabera eskaintzeko haurrak gara daitezkeen beharrezkoak diren bizi-baldintzak.
3. Estatu alderdiek, baldintza nazionalekin eta euren baliabideekin bat etorriz, neurri egokiak hartuko dituzte, gurasoei eta beste pertsona arduradun batzuei laguntzeko, eskubide hori eragingarri egiteari dagokionez eta, beharrezkoa izanez gero, laguntza materiala eta babes-programak eskainiko dituzte, bereziki, elikadurari, jantziei eta etxebizitzari dagokienez.
4. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, gurasoek edo haurrei begira finantza-ardura duten beste pertsonak mantenu-pentsioa ordaintzen dutela ziurtatzeko, guraso eta pertsona horiek estatu alderdi batean edo atzerrian bizitzea gorabehera. Bereziki, haurrei begira zein pertsonak izan finantza-ardura eta pertsona horiek ez direnean bizi haurra bizi den estatuan, estatu alderdiek sustatuko dute nazioarteko hitzarmenei atxikitzea edo halako hitzarmenak egitea, bai eta beste edozein konponketa egoki hitzartzea ere.

## **28. artikulua**

1. Estatu alderdiek aitortzen dute haurrek hezkuntzarako duten eskubidea eta, eskubide hori arian-arian egikaritu ahal izateko eta aukera-berdintasuneko baldintzetan, euren gain hartuko dute, bereziki:
  - a) Denentzat dohaineko eta derrigorreko lehen irakaskuntza ezartzea;
  - b) Bigarren irakaskuntzaren garapena suspertzea, bere mota desberdinetan, irakaskuntza horretara biltzen dela orokorra eta lanbide-izaerakoa; haur guztiek irakaskuntza hori eduki eta eskura izan dezatela lortzea; eta neurri egokiak hartzea, hala nola, dohaineko irakaskuntza ezartzea eta finantza-laguntza ematea beharrezko egoeretan;
  - c) Goi-mailako irakaskuntza denontzat eskuragarri egitea, gaitasuna oinarri hartuta, egoki diren baliabide guztien bidez;
  - d) Haur guztiek irakaskuntza- eta lanbide-gaietan informazioa eta orientazioa eduki eta horiek eskura izan ditzaten lortzea;
  - e) Neurriak hartzea, eskoletara erregularitasunez joatea suspertzeko eta eskola-uzteen tasa murrizteko.
2. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, zaintzeko eskola-diziplina gauzatzen dela haurren giza duintasunarekin bateragarri den moduan, eta konbentzio honekin bat etorriz.
3. Estatu alderdiek nazioarteko lankidetzaren suspertu eta bultzatuko dute, hezkuntza-gaietan, bereziki lagundu ahal izateko mundu osoan ezjakintasuna eta

analfabetismoa ezabatzen, eta ahalbidetzeko jakitate teknikoak eta irakaskuntza-metodo modernoak eskura izatea. Ondore horietarako, modu berezian kontuan hartuko dira garapen-bidean dauden herrialdeen beharrianak.

## **29. artikulua**

1. Estatu alderdiek adostu dute haurren hezkuntzak helburu izan behar duela:

a) Garatzea haurren nortasuna, trebetasunak eta gaitasun mentala eta fisikoa, euren ahalmenen arabera, ahalik eta gehien;

b) Haurrei irakastea giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak, eta Nazio Batuen Gutunean jasotako printzipioak errespetatu behar dituztela;

c) Haurrei irakastea errespetatu behar dituztela euren gurasoak, euren kultura-nortasuna, hizkuntza eta balioak, eurak bizi diren herrialdeko balio nazionalak, euren jatorrizko herrialdeko balio nazionalak eta beste zibilizazio batzuetako balio nazionalak;

d) Haurrek prestatzea, gizarte aske batean bizitza ganorazkoa izateko, ulermena, bakea, tolerantzia, sexu-berdintasuna eta lagun arteko giroa nagusi direla, herri, talde etniko, talde nazional nahiz erlijioso eta indigena-jatorriko pertsona guztien artean;

e) Haurrei irakastea ingurumen naturala errespetatu behar dutela.

2. Artikulu honetan edo 28. artikuluan xedatutakoa ez da interpretatuko subjektu pribatuek eta entitateek irakaskuntza-erakundeak ezarri eta zuzentzeko duten askatasunaren murrizketa gisa, baldin eta horiek errespetatzen badituzte artikulu honetako 1. paragrafoan aipatutako printzipioak, eta erakunde horietan irakatsitako hezkuntza bat badator estatuak ezarritako gutxieneko arauekin.

## **30. artikulua**

Gutxiengo etnikoak, erlijiosoak eta linguistikoak edo indigena-jatorriko pertsonak dauden estatuetan, gutxiengo horietako haurrei edo haur indigenei ez zaie ukatuko dagokien eskubidea, euren taldeko gainerako kideekin batera, euren kultura-bizitza izateko, euren erlijioa izan eta praktikatzeko, edo euren hizkuntza erabiltzeko.

## **31. artikulua**

1. Estatu alderdiek aitortzen dute haurrek duten eskubidea, atsedenaldirako eta aisialdirako, euren adinaren arabera jolasetarako eta jolas-jardueretarako eta kultura-bizitzan eta arteetan askatasunez parte hartzeko.

2. Estatu alderdiek errespetatu eta sustatuko dute haurrek duten eskubidea, oso-osoan parte hartzeko kultura- eta arte-bizitzan, eta aukera egokiak eskainiko dituzte, berdintasun-baldintzetan, kultura-, arte-, jolas- eta aisialdi-bizitzan parte hartzeko.

## **32. artikulua**

1. Estatu alderdiek haurren eskubidea aitortzen dute, babesa izateko esplotazio ekonomikoaren aurka eta edozein lan egitearen aurka, baldin eta lan hori izan badaiteke euren hezkuntzarako arriskutsua edo oztopoa, edo euren osasunarentzat edo garapen fisiko, mental, espiritual, moral edo sozialarentzat kaltegarria.

2. Estatu alderdiek legegintza-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurriak hartuko dituzte, artikuluko horren aplikazioa bermatzeko. Asmo horrekin eta nazioarteko beste tresna batzuen kasuan kasuko xedapenak kontuan hartuta, estatu alderdiek, beren-beregi:

a) Lan egiteko gutxieneko adina edo adinak ezarriko dituzte;

b) Lan-ordutegien eta -baldintzen arauketa egokia xedatuko dute;

c) Artikuluko honen aplikazio eragingarria ziurtatzeko zigor eta zehapen egokiak ezarriko dituzte.

### **33. artikulua**

Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, legegintza-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurriak barne, haurrak babesteko, kasuan kasuko nazioarteko tratatuetan aipatutako estupefazienteen eta substantzia psicotropikoen aurka, halakoak zilegi ez den moduan erabiltzen direnean, eta eragozteko haurrak erabiltzea, substantzia horiek zilegi ez den moduan ekoitzi eta trafikatzeko.

### **34. artikulua**

Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, haurrak babesteko sexu-esplotazio eta -abusu ororen aurka. Horretarako, estatu alderdiek, bereziki, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte, nazionalak nahiz bitariko eta alderdi anitzekoak, saihesteko:

a) Haurrak bultzatzea edo derrigortzea legearen aurkako edozein sexu-jarduera gauzatzera;

b) Haurrak esplotatzea prostituzioan edo legearen aurkako beste sexu-eginera batzuetan;

c) Haurrak esplotatzea ikuskizun edo material pornografikoetan.

### **35. artikulua**

Estatu alderdiek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte, nazionalak, bitarikoak nahiz alderdi anitzekoak, haurren bahiketa, salmenta edo salerosketa eragozteko, horien helburua edo modua edozein izanda ere.

### **36. artikulua**

Estatu alderdiek haurrak babesteko dituzte, gainerako esplotazio-mota guztien aurka, halakoak kaltegarriak direnean, euren ongizateko edozein alderi dagokionez.

### **37. artikulua**

Estatu alderdiek zainduko dute:

a) Hurrek ez pairatzea torturarik edo bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarririk. Ez da heriotza-zigorrik eta bizitza osorako espetxealdirik ezarriko, espetxetik ateratzeko aukerarik gabe, 18 urtetik beherako adingabeek gauzatutako delituengatik;

b) Haurrak ez dira askatasunaz gabetuko, legearen aurka edo nahierara. Haurren atxiloteta, espetxeratze edo espetxealdiak gauzatuko dira legearekin bat etorritz, eta azken konponbide moduan erabiliko dira, eta bidezkoa den epealdirik laburrenean;

c) Askatasunaz gabetutako haur guztiak tratatuko dira gizakien duintasunak merezi duen gizatasunez eta errespetuz, eta kontuan hartuz adin horretako pertsonak dituzten beharrianak. Bereziki, askatasunaz gabetutako haur guztiak adin nagusikoengandik bananduta egongo dira, non ez den ulertzen hori haurren interes gorenaren kontra doala, eta haur guztiek eskubidea izango dute euren familiarekin harremanak izateko, korrespondentziaren edo bisiten bidez, salbuespeneko inguruabarretan izan ezik;

d) Askatasunaz gabetutako haur guztiek eskubidea izango dute, al bait lasterren laguntza juridiko eta bestelako laguntza egokia izateko, bai eta eurek pairatu duten askatasun-gabetzea auzitegi edo agintari eskudun, independente eta inpartzial baten aurrean aurkaratzeko eta akzio horren gaineko erabaki azkarra izateko ere.

### **38. artikulua**

1. Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, nazioarteko zuzenbide humanitarioko arauak errespetatzeko eta arau horiek errespetatzen direla zaintzeko, halakoak aplikagarri zaizkienean gatazka armatuetan eta haurrentzat egokiak direnean.

2. Estatu alderdiek ahalik eta neurri gehien hartuko dute, ziurtatzeko 15 urte bete ez dituzten pertsonak borroketan zuzeneko parte-hartzerik ez izatea.

3. Estatu alderdiek indar armatuetarako ez dituzte errekrutatuko 15 urte bete ez dituzten pertsonak. Errekrutatzen badituzte 15 urte bete dituzten pertsonak, baina 18 urtetik beherakoak direnak, estatu alderdiek ahaleginak egingo dituzte, adin gehiagokoei lehentasuna emateko.

4. Nazioarteko zuzenbide humanitarioak eratorritako betebeharrekin bat etorritz, gatazka armatuetan biztanleria zibila babesteari dagokionez, estatu alderdiek ahal duten neurri gehienak hartuko dituzte, gatazka armatu batek ukitutako haurren babesa eta zaintza ziurtatzeko.

### **39. artikulua**

Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, hurrek egoera fisikoa eta psikologikoa berreskura dezaten eta haurrak gizartera daitezen sustatzeko, haurrak hurrengo biktima direnean: edozein abandonu, esplotazio edo abusuren biktima;

tortura edo bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriren biktima; gatazka armatuetako biktima. Berreskuratze eta gizarteratze hori gauzatuko da osasuna, norberarenganako errespetua eta haurren duintasuna suspertzen dituen giroan.

#### **40. artikulua**

1. Alegatzen denean hurrek zigor-legeak hautsi dituztela edo haur horiek akusatzen direnean edo errudunak direla adierazten denean, lege horiek hausteagatik, orduan, estatu alderdiek aitortzen dute haur horien eskubidea, tratatu daitezen eurengan duintasunaren eta balioaren zentzua suspertzeko moduan; horrekin lortu nahi da haur horien errespetua gehitzea, enparauen oinarrizko eskubideei eta oinarrizko askatasunei begira, eta kontuan hartzea haurren adina, eta zein garrantzitsua den haurren gizarteratzea sustatzea eta hurrek gizartean eginkizun eraikitzailea bereganatzea.

2. Asmo horrekin eta nazioarteko tresnen kasuan kasuko xedapenak kontuan hartuta, estatu alderdiek, beren-beregi bermatuko dute:

a) Ez alegatzea hurrek zigor-legeak hautsi dituztela, eta haurrak ez akusatzea edo errudun direla ez adieraztea, lege horiek hausteagatik, egite nahiz ez-egiteen ondorioz, baldin eta egite nahiz ez-egite horiek gauzatu baziren lege nazionalak edo nazioartekoek halakoak debekatu gabe zituzten unean;

b) Alegatzen bada hurrek zigor-legeak hautsi dituztela edo haurrak akusatzen badira lege horiek hausteagatik, haur horiei bermatzea, gutxienez, honako hau:

i) Errugabetzat jotzea, legearen arabera errudun dela frogatzen ez den bitartean;

ii) Atzerapenik gabe eta zuzenean edo, bidezkoa denean, gurasoen edo lege-ordezkarien bidez, informazioa ematea, euren aurka dauden egozbidetari buruz, eta laguntza juridikoa edo bestelako laguntza egokia izatea, euren defentsa prestatu eta aurkezteko;

iii) Agintari edo organo judizial eskudun, independente eta inpartzial batek auzia ebaztea, atzerapenik gabe, legearen araberako entzunaldi bidezko baten bidez, aholkulari juridiko bat edo bestelako aholkulari egoki bat bertan dela, eta kontuan hartuz haurren adina edo egoera, eta haurren gurasoak edo lege-ordezkariek, hori haurren interes gorenaren aurka doala uste denean izan ezik;

iv) Ez behartzea lekukotza ematera edo euren burua erruduntzat jotzera, egozbidetari lekukoei galderak egin ahal izango dizkietela edo lekuko horiei galdeketa egitea behartu ahal izango dutela, eta zuri-bide-lekukoaren partaidetza eta galdeketa lortu ahal izatea, berdintasun-baldintzetan;

v) Erabakitzen bada benetan hautsi dituztela zigor-legeak, erabaki hori eta horren ondorioz ezarritako neurri guztiak uztea goragoko agintari edo organo judizial eskudun, independente eta inpartzialaren mende, legearekin bat etorriz;

vi) Haurrek dohaineko interprete baten laguntza izatea, baldin eta erabilitako hizkuntza ulertzen edo hitz egiten ez badute;

vii) Euren bizitza pribatua erabat errespetatzea, prozeduraren fase guztietan.

3. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, haurrentzako lege, prozedura, agintari eta erakunde bereziak ezar daitezzen sustatzeko, alegatzen denean haurrek zigor-legeak hautsi dituztela edo haurrak akusatzen direnean edo errudun direla adierazten denean, lege horiek hausteagatik, eta bereziki hurrengo neurriak:

a) Gutxieneko adina ezartzea, adin horretatik behera uste izango dela haurrek ez dutela gaitasunik zigor-legeak hausteko;

b) Egoki eta komenigarri bada, haur horiek tratatzeko neurriak hartzea, prozedura judizialetera jo beharrik gabe, betiere, erabat errespetatzen badira giza eskubideak eta lege-bermeak.

4. Neurri desberdinak xedatuko dira, hala nola, zaintza, orientazio- eta gainbegiratze-neurriak, aholkularitza, zaintzapeko askatasuna, zaintza-etxeetan uztea, irakaskuntza eta lanbide-heziketako programak, bai eta erakundeetan barneratzerik ez dakarten beste aukera batzuk ere, ziurtatzeko haurrak euren ongizateari begira modu egokian tratatzen direla, eta hartutako neurria haurren inguruabarrekin nahiz arau-hausteekin proportzionala dela.

#### **41. artikulua**

Konbentzio honetan xedatutakoak ez ditu ukituko haurren eskubideak gauzatzeko aproposago diren xedapenak, eta hurrengoetara bilduta egon daitezkeenak:

a) Estatu alderdi baten zuzenbidera; edo

b) Nazioarteko zuzenbidera, estatu horri begira indarrean dagoen heinean.

## **II. ZATIA**

#### **42. artikulua**

Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute konbentzioko printzipioen eta xedapenen berri zabal emateko bide eragingarri eta egokiak baliatuta, adin nagusikoei nahiz haurrei.

#### **43. artikulua**

1. Konbentzio honetan estatu alderdiek euren gain zein betebeharrak hartu eta betebeharrak gauzatzeari dagokionez emandako aurrerapausoak aztertze helburuarekin, Haurren Eskubideei buruzko Komitea ezarriko da, jarraian ezartzen diren eginkizunak gauzatzeko dituela.



2. Komitea hemezortzi adituk osatuko dute, denak ere moral aldetik zintzotasun handikoak eta trebetasun nabarikoak, konbentzio honek araututako gaietan. Estatu alderdiek hautatuko dituzte Komiteko kideak, euren nazionalen artean, eta kide horiek euren eginkizunak modu pertsonalean gauzatuko dituzte, behar bezala kontuan hartuko direla geografiaren arabera banaketa orekatsua eta sistema juridiko nagusiak.

3. Komiteko kideak isilpeko botazio bidez hautatuko dira, estatu alderdiek izendatutako pertsonen zerrenda batetik. Estatu alderdi bakoitzak pertsona bat izendatu ahal izango du bere nazionalen artean.

4. Hasierako hautatzea egingo da konbentzio hau zein datatan indarrean jarri eta data horretatik sei hilabete igaro ondoren, eta gerogarrenean bi urterik behin. Hauteskunde bakoitza zein datatan egin eta, gutxienez, data hori baino lau hilabete lehenago, Nazio Batuetako idazkari nagusiak gutun bat bidaliko die estatu alderdiei, euren hautagai-zerrendak bi hilabeteko epean aurkezteko gonbita eginez. Ondoren, idazkari nagusiak zerrenda prestatuko du, bertan jasoko direla, hurrenkera alfabetikoaren arabera, hala proposatutako hautagai guztiak, hautagai horiek proposatu dituzten estatu alderdiak zehaztuz, eta konbentzio honetako estatu alderdiei komunikatuko die hori.

5. Hauteskundeak egingo dira estatu alderdien bilera batean; bilera horren deialdia idazkari nagusiak egingo du, eta bilera Nazio Batuen egoitzan egingo da. Bilera horretarako estatu alderdien bi herenak osatuko du quoruma, eta Komiterako pertsona hautatuak izango dira boto gehien lortzeaz gain, bilerako estatu parte-hartzaile eta boto-emaeleen ordezkarien artetik botoen erabateko gehiengoa lortzen duten hautagaiak.

6. Komiteko kideak lau urterako izendatuko dira. Berrito hautatu ahal izango dira, baldin eta hautagai-zerrendan berrito aurkezten badira. Lehenengo hautaketan hautatutako bost kideren agintaldia bi urte igaro ondoren amaituko da; lehenengo hautaketa egin eta berehala, bilerako lehendakariak zozketa bidez izendatuko ditu bost kide horiek.

7. Komiteko kideren bat hiltzen bada edo kide horrek dimititzen badu edo adierazten badu beste edozein arrazoirengatik ezin duela aurrerantzean Komiteko eginkizunak gauzatu, kide hori proposatu zuen estatu alderdiak bere nazionalen artean izendatuko du beste aditu bat, agintaldia bukatu arte bere eginkizunak gauza ditzan; Komiteak onetsi beharko du aditu horren izendapena.

8. Komiteak onetsiko du bere araudia.

9. Komiteak hautatuko du bere mahaia, bi urterako.

10. Komitearen bilerak, orokorrean, Nazio Batuetako egoitzan egingo dira, edo Komiteak egokitzen jotzen duen beste edozein tokitan. Komitea, orokorrean, urtero bilduko da. Bidezkoa denean, Komitearen bileren iraupena zehaztu eta berrikusiko da konbentzio honetako estatu alderdiek egindako bilera batean, Biltzar Orokorrak onetsi beharko duela hori.

11. Konbentzio honen arabera, Komitearen eginkizunak eragingarriak izan daitezten, Nazio Batuetako idazkari nagusiak behar adina langile eta zerbitzu ezarriko ditu.

12. Aldez aurretik Biltzar Orokorrak hala onetsita, konbentzio honen ondorioz ezarritako Komiteko kideek zerbitzu-sariak jasoko dituzte Nazio Batuetako funtsen kontura, Biltzarrak ezar ditzakeen baldintzen arabera.

#### **44. artikulua**

1. Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, Komiteari txostenak aurkezteko, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren bidez, konbentzio honetan zein eskubide aitortu eta eskubideok gauzatzeko hartu dituzten neurrien inguruan eta eskubide horiek baliatzeari dagokionez eman dituzten aurrerapausoen inguruan:

- a) Estatu alderdi bakoitzarentzat konbentzio hau indarrean jarri eta bi urteko epean;
- b) Osterantzekoan, bost urterik behin.

2. Artikulu honen arabera prestatutako txostenek zehaztu beharko dute, konbentzio honek zein betebeharrak eratorri eta betebeharrak ez gauzatzeko orduan eragina izan duten inguruabar eta zailtasunak, halakoak baleude. Orobat, behar adinako informazioa jaso beharko dute, Komiteak behar bezala jakin dezan konbentzioak duen aplikazioa kasuan kasuko herrialdean.

3. Komiteari hasierako txostena oso-osoan aurkeztu dioten estatu alderdiek ez dute betebeharrak, artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorritik gerogarrenean aurkeztutako txostenetan, aldez aurretik aurkeztutako oinarritzko informazioa errepikatzeke.

4. Komiteak estatu alderdiei informazio gehiago eskatu ahal izango die, konbentzio honen aplikazioari buruz.

5. Komiteak bi urterik behin aurkeztuko dizkio bere jarduerari buruzko txostenak Nazio Batuetako Biltzar Orokorrari, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren bidez.

6. Estatu alderdiek euren herrialdeetan zabal hedatuko dituzte txostenak jendaurrean.

#### **45. artikulua**

Konbentzio honen aplikazio eragingarria suspertzeko eta konbentzioak araututako esparruan nazioarteko lankidetzaren bultzatzeko helburuarekin:

a) Erakunde espezializatuek, Haurrentzako Nazio Batuen Funtsak eta Nazio Batuetako gainerako organoek eskubidea izango dute ordezkatuta egoteko konbentzio honetako xedapenen aplikazioa aztertzen denean, betiere, xedapen horiek euren agintaldira biltzen badira. Komiteak gonbita egin ahal izango die, halaber, erakunde espezializatuari, Haurrentzako Nazio Batuen Funtsari eta egokitzat jotzen dituen beste organo eskudun batzuei, konbentzioaren aplikazioari buruz aholku bereziak eman ditzaten, euren kasuan kasuko agintaldietara bildutako

esparruetan. Komiteak gonbita egin ahal izango die erakunde espezializatuei, Haurrentzako Nazio Batuen Funtzari eta Nazio Batuetako gainerako organoei, txostenak aurkez ditzaten, konbentzioaren xedapenek duten aplikazioaren inguruan, xedapenok euren jarduera-esparrura biltzen direnean;

b) Komiteak, komenigarri iruditzen zaionaren arabera, erakunde espezializatuei, Haurrentzako Nazio Batuen Funtzari eta bestelako organo eskudun batzuei bidaliko dizkie estatu alderdien txostenak, halakoek jasotzen dutenean aholkularitza edo laguntza teknikorako eskabidea, edo halakoetan beharizan hori aipatzen denean; txosten horiekin batera bidaliko ditu Komitearen oharra eta iradokizunak, halakoak baleude, eskabide edo aipamen horien inguruan;

c) Komiteak Biltzar Orokorrari gomendatu ahal izango dio idazkari nagusiari eskatzeko bere izenean ikerlanak gauzatea, hurren eskubideei buruzko gai zehatzen inguruan;

d) Komiteak iradokizun eta gomendio orokorrak egin ahal izango ditu, konbentzio honetako 44 eta 45. artikuluen ondorioz jasotako informazioan oinarrituta. Izaera orokorreko iradokizun eta gomendio horiek estatu alderdi interesdunei bidali beharko zaizkie, eta Biltzar Orokorrari jakinarazi beharko zaizkio, estatu alderdiek egindako oharrekin, halakoak baleude.

### **III. ZATIA**

#### **46. artikulua**

Konbentzio hau estatu guztiek sinatu ahal izango dute.

#### **47. artikulua**

Konbentzio hau berretsi beharko da. Berreste-agiriak Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko dira hark gordailutu ditzan.

#### **48. artikulua**

Konbentzio honi edozein estatu atxiki ahal izango zaio. Atxikipen-agiriak Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko dira hark gordailutu ditzan.

#### **49. artikulua**

1. Konbentzio hau indarrean jarriko da, berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeigarrena zein datatan gordailutu, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita, eta hogeita hamargarren egunean.

2. Berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeigarrena gordailutu ondoren konbentzioa berresten duen edo horri atxikitzen zaion estatu bakoitzarentzat konbentzioa indarrean jarriko da, kasuan kasuko estatu horrek zein datatan gordailutu bere berreste- edo atxikipen-agiria eta hogeita hamargarren egunean.

## **50. artikulua**

1. Estatu alderdi orok zuzenketa proposatu eta, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita, gordailutu ahal izango du. Proposatutako zuzenketa Nazio Batuetako idazkari nagusiak komunikatuko die estatu alderdiei; aldi berean, eskatuko die jakinarazi diezaiotela estatu alderdien Konferentziarako deialdia egitea nahi duten, proposamena aztertu eta horren inguruko botazioa egiteko. Jakinarazpen hori zein datatan egin eta data horren ondorengo lau hilabeteetan estatu alderdietarik, gutxienez, herenak deialdi horren alde egiten badu, idazkari nagusiak konferentziarako deialdia egingo du, Nazio Batuen babespean. Konferentzian izan eta boto-emaile diren estatu alderdien gehiengoarekin zein zuzenketa onetsi eta idazkari nagusiak zuzenketa hori estatu alderdi guztien mende utziko du onarpenerako.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoarekin bat etorriz onartutako zuzenketa oro indarrean jarriko da, Nazio Batuetako Biltzar Orokorrak hori onesteaz gain, estatu alderdiek onartzen dutenean, bi hereneko gehiengoarekin.

3. Zuzenketa horiek, indarrean jartzen direnean, nahitaezkoak izango dira halakoak onartu dituzten estatu alderdientzako; gainerako estatu alderdiek, ordea, konbentzio honetako xedapenak eta aldez aurretik eurek onartutako zuzenketak betetzen jarraituko dute.

## **51. artikulua**

1. Estatuak berrespen- edo atxikipen-unean egindako erreserben testua Nazio Batuetako idazkari nagusiak jasoko du, eta testu hori estatu guztiei komunikatuko die.

2. Ez da onartuko konbentzioaren xedearekin eta asmoarekin bateraezina den erreserbarik.

3. Erreserba oro edozein unetan kendu ahal izango da, Nazio Batuetako idazkari nagusiari ondore horietarako jakinarazpena eginez; idazkari nagusiak horren berri emango die estatu guztiei. Jakinarazpen horrek ondoreak sortuko ditu idazkari nagusiak hori jasotzen duen datan.

## **52. artikulua**

Estatu alderdi orok konbentzio hau salatu ahal izango du, Nazio Batuetako idazkari nagusiari idatziz egindako jakinarazpenaren bidez. Salaketak ondoreak sortuko ditu, idazkari nagusiak jakinarazpena jaso eta urtebetera.

## **53. artikulua**

Nazio Batuetako idazkari nagusia izendatu da konbentzio honetako gordailuzain.

## **54. artikulua**

Konbentzio honen jatorrizko testua Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko da, hark gordailutu dezan; berebat, konbentzioaren testuak kautoak izango dira, arabiarrez, txinatarrez, espainolez, frantsesez, ingelesez eta errusieraz.

HORI GUZTIORI AITORTUZ, behean sinatzen duten botereguztidunek, euren gobernuek behar bezala baimenduta daudela, konbentzio hau sinatzen dute.